

LA CAIXA FUNDAZIOA: HEALTH RESEARCH 2020

Xedea:

Deialdi honen helburua oinarrizko ikerketa, ikerketa kliniko edo traslazionaleko proiektuak finantzatzea da. Proiektuek aitzindariak, originalak eta garrantzi handikoak izan behar dute.

Lehentasunezko arlo tematikoak:

- A) Neurozientziak (horietako bat alboko esklerosi amiotrofikoari buruzkoa izango da (ELA), eta Francisco Luzón Fundazioak finantzatuko du partzialki).
- B) Gaixotasun infekziosoak.
- C) Onkologia.
- D) Gaixotasun kardiobaskularrak eta metabolikoak
- E) Teknologia bideratzaileak: besteak beste, mikro eta nano-elektronika, zientzia konputazionala, big data, fotonika, nanoteknologia, bioteknologia, material aurreratuak edo fabrikazio aurreratuak bezalako esparruetatik datozen osasuna errazteko teknologiak sortzera eta garatzera bideratutako proiektuak. Proiektuek, halaber, aurreko 4 arlo tematikoetako gaiak jorratzera bideratuta egon beharko lukete.

Proiektuen ezaugarriak:

- A) Banakako proiektuak: ikerketa-erakunde bakar batek (erakunde eskatzaileak) aurkeztutakoak. Banakako proiektuek 500.000 €arteko laguntza eska dezakete, eta 3 urte arteko iraupena izan dezakete.
- B) Ikerketa-partzuergoko proiektuak: ikerketa-partzuergo batek aurkeztuak, gutxienez 2 eta gehienez 5 ikerketa-erakundez osatua, erakunde eskatzailea barne. Ikerketa-partzuergoko proiektuek 1.000.000 €arteko laguntza eska dezakete, eta 3 urte arteko iraupena izan dezakete.

Erakunde eskatzaileak koordinatuko ditu proiektuak. Horrez gain, biek, banakako proiektuek eta ikerketa-partzuergoko proiektuek barne har ditzakete gizarte zibileko erakundeak, irabazi-asmorik gabekoak eta ikertzaileak ez direnak, baldin eta proiektuan jarduerak egiten badituzte. Gehienez ere, Gizarte Zibileko 3 erakunde onartuko dira proposamen bakoitzeko.

Biek, banakako proiektuek eta ikerketa-partzuergoko proiektuek Project Leader (PL) bat izan behar dute, eta ikerketa-partzuergoko proiektuen kasuan, eskaerak ikertzaile nagusi bat ere izan behar du Partzuergoko ikerketa-erakunde bakoitzeko. Ikerketa Erakunde bakoitzeko IP bakarra baimentzen da.

Proposatutako proiektuek **originalak izan behar dute**, eta ezin dira egon jada finantzatuta, osorik edo zati batean, proposamena aurkezteko unean beste laguntza baten bidez.

Gastu hautagarriak:

a) Zuzeneko kostuak:

- Langileak
- Bidaiak
- Ekipamendua
- Suntsikorra
- Argitalpenak
- Zabalkundeko eta gizarte-konpromisoko jarduerak
- Beste kostu zuzen batzuk
- Azpikontratazioa eta auditoretza (500.000 eurotik gorako laguntza eskatzen duten proiektuek kanpoko auditoria baten kostua sartu beharko dute aurrekontuan, eta erakunde eskatzaileak egin beharko du, proiektuaren iraupena amaitzean).

b) Zeharkako kostuak (gastu orokorrak): zuzeneko kostuen % 10 gehienez (azpikontratazioa kontuan hartu gabe)

Partzuergoetarako, honako hauek hartuko dira kontuan:

- a) Ikerketa-erakundeek eta sozietate zibileko erakundeek, biek, Partzuergoko kide izateko jarduerak egin behar dituzte proiektuan. Ikerketa-erakunde guztiek aurrekontu bat izan behar dute esleituta. Gizarte Zibileko erakundeek ez dute nahitaz aurrekontu bat esleituta izan behar; hala ere, proposamenean duten parte-hartzea justifikatu egin behar da.
- b) Ikerketa-erakundeek eta Espainian edo Portugalen kokatuta ez dauden sozietate zibileko erakundeek proiektuaren aurrekontu osoaren % 30era arte jaso ahal izango dute.
- c) Irabazi-asmoa duten erakundeek, enpresak barne, ezin dute partzuergoetako kide izan. Erakunde horiek proiektuaren funtsak jaso ahal izateko, ikerketa-erakundeek azpikontratatu behar dituzte.

Proiektuko Liderraren /Ikertzaile Nagusiaren betekizunak:

- Project Leader -> Erakunde eskatzailearekiko lotura /Ikertzaile Nagusia -> Ikerketa Erakundearekiko lotura, laguntza eskatzen den unean.
- Adinez nagusia izatea.
- Gutxienez 7 urteko doktoretza ondoko esperientzia izatea ikerketan. Horregatik, deialdia itxi baino 7 urte lehenago lortuta izan beharko dute doktoretza.

Ikertzaile bat proiektu bakar batean aurkez daiteke lider gisa. Proiektu-lider bat (PL) hainbat proiektutan ager daiteke ikertzaile nagusi gisa (Pi) edo taldeko kide gisa, baldin eta bere erakundea ikerketa-partzuergoko beste proiektu batzuen parte bada. Erakunde batek ez du mugarik proposamenak aurkezteko.

Ikerketa-taldeko kideen betekizunak:

- Proiektuko taldeko kide guztiek erakunde eskatzaileko, gizarte zibileko erakundeetako edo ikerketa-partzuergoko erakundeetako kide izan behar dute.

GARRANTZITSUA: Laguntza gauzatzen den bitartean UPV/EHUrekin duten lotura amaitzen duten ikerketa-taldeko kideek ezin izango dute gasturik egotzi egoera horrek irauten duen bitartean. Project Leader-aren edo Ikertzaile nagusiaren ardura izango da proiektua gauzatzean gertatzen diren bajen berri ematea Ikerketako Errektoreordetzari.

Eskabideak aurkeztea:

Edizio honetan, ikerketako eta berrikuntzako deialdietarako proposamenak aurkezteko sistema berria da, eta [esteka](#) honetan egongo da eskuragarri.

Erabiltzaileak eta rolak online plataforma berrian:

-**Project Leader (PL):** proposamenaren ardura duen ikertzailea, irabazlea izanez gero hitzarmena sinatzen duena ere bada. Ezinbestekoa da PL sisteman erregistratzea bere **datu pertsonalekin**, eta bere erakundeari lotzea, zerrenda batean aurkituko duena. Bertan erakunderik aurkitzen ez bada, erakundearen izena eta IFK sartu behar dira.

-**Organization Manager (OM):** erakunde eskatzailearen kudeatzailea, organizazioak proposamenarekin lotutako kudeaketa-izapideak egiteko duen ordezkari bakarra (erakundeari lotutako PL-aren parte-hartzea onartzea eta, hautatutako proposamenen kasuan, beharrezko dokumentazioa ematea).

-**PL-ak ezin du proposamena izapidetu OM-aren on-line onarpena jaso arte.**

-**OM-ak proposamenen oinarritzko datuak, aurrekontua eta partzuergoko kideak irakurtzeko aukera du.**

-**Principal Investigator (Pi):** partzuergoko kide bakoitzaren ikertzaile nagusia. PI-ak bera kide den proposamena irakurtzeko aukera dauka, **PL-aren gonbidapenaren bidez**. Proposamena ikus dezake eta **on-line onartu behar du izapidetzeko**.

-**Civil Society Organizations (CSO):** irabazi asmorik gabeko gizarte zibileko erakundeak, proposamen bateko kide gisa parte hartzen dutenak (banakakoa edo partzuergoan). CSOko ordezkariak aukera du kide den proposamena irakurtzeko, **PL-aren gonbidapenaren bidez**. Proposamena ikus dezake eta **on-line onartu behar du izapidetzeko**.

Eskaera eta hautaketa prozesu guztia, elkarrizketa barne, **ingelesez** egingo da. Dokumentu guztiak ingelesez aurkeztu behar dira. Hasiera batean beste edozein hizkuntzatan idatzitako edozein dokumentu ingeleserako itzulpenarekin batera joan behar du.

Eskabide-inprimakiarekin batera, honako hauek aurkeztu beharko dira:

Proiektuaren Gantt diagrama (orrialde 1eko pdf-a).

Irudiak eta taulak (gehienez 3 orrialdeko pdf bat, grafiko eta irudi gehigarri guztiekin,

proiektuaren deskribapenari laguntzeko).

Proposamen osatugabeak deialdi honetan parte hartzeko hautaezintzat joko dira.

Aurrekontua egiteko jarraibideak:

UPV/EHUren bidez aurkeztutako eskaerek kostu zuzenen gainean kalkulaturako zeharkako kostuen %10 jaso beharko dute, azpikontratazioa kontuan hartu gabe, beren aurrekontuan.

Garrantzitsua: Irakasle eta ikertzaileek ezingo dute nominako ordainsaririk jaso deialdi honen bidez.

Aplikazioan akreditatzeko jarraibideak:

Ikerketako Errektoreordetzarekin harremanetan jartzea, Project Leader gisa eskaera aurkeztuko bada, EHUren baimena behar delako proposamena tramitatzeko. Horrek esan nahi du erakundearen kudeatzaileak (OM) on-line plataformaren bidez baliozkotu behar duela.

Eskabideak aurkezteko epea:

2020ko otsailaren 12ko, 14:00ak arte.

Eskabideak UPV/EHU aurkezteko prozedura:

KONTUAN HARTU BEHARREKO DATAK	ARDURADUNA	IZAPIDEA
2019ko abenduaren 10etik aurrera	PL/PI	Project Leader-ek (PL) VRlri jakinaraztea eskabidea aurkezteko asmoa, aplikazioan alta emateko beharrezkoa den informazioa bidal diezaiozun. Ikerketa Partzuergo batean parte hartzeko asmoaren berri ematea Principal Investigator-ak (PI).
2020ko urtarrilaren 14ra arte	PL/PI	Proposatutako taldea berrikusteko "I. eranskina" bidaltzea convocatorias.dgi@ehu.eus helbidera.
2020ko urtarrilaren 31era arte Data horretatik aurrera, ezin izango da bermatu eskabideak eska ditzakeen agiriak epearen barruan bidaliko direnik.	PL	Eskaera-inprimakia igortzea, convocatorias.dgi@ehu.eus helbidera, berrikusteko. Beharrezkoa izanez gero, IAEk atxikitzeko dokumentazioa bidaliko du.
2020ko otsailaren 12a	PL/PI	Eskabidea osorik bidaltzea convocatorias.dgi@ehu.eus helbidera, artxibatzeko. Deialdiaren bukaera 14:00etan.

KONTUAN HARTU BEHARREKO DATA NAGUSIAK

Erabiltzaileak erregistratzeko on-line plataforma berria irekitzea

2019ko abenduaren 9an, 14:00etan, CET

Proposamenak eskatzeko on-line plataforma berria irekitzea

2020ko urtarrilaren 8a, 14:00etan, CET

Deialdia ixtea

2020ko otsailaren 12an, 14:00etan, CET

GARRANTZITSUA: Project Leader-a izango da aplikazioan proiektu-eskaera aurkezteko arduraduna.

ESKABIDEA BETETZEKO DATUAK (UPV/EHU):

Los datos del Organismo (UPV/EHU) que puedan requerirse para cumplimentar la solicitud son:

- IFK: Q4818001B
- Egoitza soziala: Sarriena Auzoa, z/g
- Posta Kodea: 48940
- Herria: Leioa

Harremanetarako UPV/EHUn:

- Telefonoa: 94 601 80 08
- Fax-a: 94 601 35 50
- E-mail-a: convocatorias.dgi@ehu.eus

Contacto en la Fundación la Caixa:

- E-mail: healthresearch@fundaciolacaixa.org

Informazio gehigarria:

<https://obrasociallacaixa.org/es/investigacion-y-becas/convocatorias-de-investigacion/convocatoria-de-investigacion-en-salud/descripcion-del-programa>